



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2019KO UZTAILAREN 19AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Igor Zapirain Lizarribar
Nagore Zubillaga Garmendia
Luis Muñagorri Lasa
Agurtzane Arribillaga Uranda

Batzordekide ez diren zinegotziak:

Juan Luis Cid Conde
Rodrigo Vilar Aranda

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Kontuhartzailea:

Ibarran 2019ko uztailaren 19an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko bederatzi eta erdiak direnean Tokiko Gobernu batzarrak ohiko bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Igor Zapirain Lizarribar alkatea izan zen eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.- HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAK ESKATURIKO DIRU-LAGUNZA HIRZARMENA ONARTZEA

2019ko ekainaren 6an Hauspibarra Kultur Elkarteak 21.000 eurotako diru-laguntza eskaera egiten du.

2019WPOL0151 espediente bidez izapidetu da diru-laguntza. Espedientean, Kontuhartzaile eta Idazkariaren txostenak barneratu dira eta bertan adierazitakoak kontutan izanda; diru-laguntza formalizatzeko hitzarmena aurkezten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari honek onar dezan.

Aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea 2019WPOL0151 espediente bidez izapidetu den Hauspibarra Kultur Elkartek eskaturiko 21.000 eurotako diru-laguntza emateko hitzarmena sinatzea.

BIGARRENGOA: Diru-laguntza 1 09.334.00.481.01. 2019 kontu sailetik ordainduko da.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Hauspibarra Kultur Elkarteari eta Kontuhartzaitzari.

2.- ARGITERIA PUBLIKOAREN HORNIDURA EGITEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO PLEGU ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA

2019WKPI0003 espedientearen baitan, Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza departamentutik, Ibarra argiteria publikoaren hornidura egiteko prozedura ireki bidezko plegu administratibo eta teknikoak aurkezten dira.

Kontuhartzaille eta Idazkariaren txostenetan esandakoak barneratu ondoren pleguak aurkezten zaizkio Tokiko Gobernu Batzordeari, organo eskuduna den heinean, honek onar ditzan.

Aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea 2019WKPI0003 espedientearen barneratzen diren Ibarra herrian argiteria publikoa hornitzeko prozedura ireki bidez, esleipena egiteko baldintza plegu administratibo eta teknikoak.

BIGARRENGOA: Esleipena izapidetzen hasia eta pleguak kontratazio profileen argitaratzea.

3.- ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA IBARRAN KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZKO PLEGU ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2019WKPI0002 espedientearen baitan, Gizarte Zerbitzu departamentutik, Ibarra etxez-etxe laguntza zerbitzua egiteko prozedura ireki bidezko plegu administratibo eta teknikoak aurkezten dira (kontutan izanik kontratua 2019ko irailaren 30ean amaitzen dela).

Kontuhartzaile eta Idazkariaren txostenetan esandakoak barneratu ondoren pleguak aurkezten zaizkio Tokiko Gobernu Batzordeari, organo eskuduna den heinean, honek onar ditzan.

Aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea 2019WKPI0002 espedientearen barneratzen diren Ibarra herrian etxez-etxe laguntza zerbitzua, prozedura ireki bidez, esleipena egiteko baldintza plegu administratibo eta teknikoak.

BIGARRENGOA: Esleipena izapidetzen hastea eta pleguak kontratazio profileen argitaratzea.

I

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamarrak hamar gutxi direnean eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut

Ibarra Udaleko idazkaria

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarra 2019ko uztailaren 19an



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria